

## “OSASUN LARRIALDIAK DAKARREN KRISIARI AURRE EGITEKO MOMENTUA DA ETA HORRETARA BIDERATU BEHAR DITUGU GURE BALIABIDEAK”

- Krisi honek ez du Oñatiko Udal egoera ekonomikorik onenean harrapatu, 11,3 milioiko zor bzia du eta zorpetze maila %6,58koa da, Oñatiren antzeko Gipuzkoako udalen batezbestekoa baino 2,27 handiagoa eta “erabateko zuhurtziaz jokatzea eta lehentasunak markatzea ezinbestekoa da egoera honetan”.
- “Krisiari aurre egiteko gainerako erakundeek ezarritakoekin bateragarriak diren neurriak jarri behar ditu martxan udalak, esaterako, udal zerga eta tasetan hobariak eta salbuespenak eta herriko jarduera ekonomikoa sustatzeko bonoak”

Mundu mailako pandemia dela eta garai zailak eta ezohikoak bizi ditugu eta horrek bere isla du baita Oñatiko Udalaren jardunean ere. 2019ko aurrekontu orokorraren likidazioa izan zen aztergai joan den astean ogasun batzordean eta osoko bilkuran eta biak ere baliabide telematikoen bidez egin ziren koronabirusaren hedapena geldiarazteko irizpideetan oinarrituta.

### Udalaren egoera ekonomikoa

Bistan da osasun larrialdi honek ondorioak utziko dituela gure ekonomian, autonomo eta enpresa txikiak hasi dira dagoeneko larrialdian hartutako neurrien ondorioak pairatzen eta udal ekonomian ere izango du eragina jeltzaleek azaldu dutenez. “Koronabirusak sortutako krisialdiari aurre egiteko udalak duen egoera, zoritzarrez, ez da egokiena” dio Galdosek, “behin eta berriz eskatu izan dugu azken urteotan kirolegiko obrei aurre egin ahal izateko aurreikuspenak egitea, tamalez, ordea, ez dira gure eskaerak aintzat hartu eta krisiak bete betean harrapatu gaitu”. Kontu-hartzaileak egindako txostenak jasotzen du, Oñatiko Udalak 11,3 milioiko zor bzia duela eta udalaren zorpetze maila %6,58koa dela, Oñatiren antzeko Gipuzkoako udalen batezbesteko zorpetze maila baino 2,27 handiagoa. Jeltzaleek azaldu dutenez, “krisi honen eraginez, aurreikus daiteke diru-bilketa jaitsiko dela eta udalak bere diru-sarrerak murriztuak ikusiko dituela, bai diru-bilketa propietatik eta baita foru funtsetik ere”. Beraz “beharrezko da hori aintzat hartzea eta zuhurtziarik handienarekin jokatzea” azaldu du EAJ udal taldearen bozeramaileak.

### Likidazioa eta gerakina

“2019ko aurrekontuaren likidazioak 13.021.803,20 euroko diruzaintza gerakina utzi digu” azaldu dute jeltzaleek, “gastuen gauzatze maila baxu horren arrazoi nagusia da, 2019ko aurrekontuetan jaso ziren 14.655.895, 91 milioiko inbertsioetatik 4.474.171,13 euro baino ez direlako gauzatu. Gerakina 13 milioi ingurukoa bada ere, horietatik ia 8 milioi eta erdi konprometituta daude eta horien txertaketa alkatearen dekretu bidez egin da, 2 milioi inguruko kreditu gehigarriak, aldi, osoko bilkuran onartu behar zituen udal batzak eta Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak azaldu duenez, “udal gobernuak proposamen itxia eraman zuen bai ogasun batzordera eta baita osoko bilkurara ere. Ez zaigu ekarpenik egiteko aukerarik eman eta prentsari eta oposizioari aldi berean helarazi zaigu”.

Jeltzaleak arduratuta daude, bereziki, gerakina zertara bideratu erabakitzeko prezipitazioarekin. Azaldu dutenez, dokumentua martxoaren erdialdean idatzi zen eta geroztik egoera erabat irauli da. “Oñatiko autonomoen, negozio txikien, merkatarien, ostalarien langileen... egoerak okerrera egin du nabarmen eta aurreikus daiteke hemendik aurrerako egoera ere ez dela hobea izango, beraz, arduragabea iruditzen zaigu egungo egoera aintzat hartzen ez duen proposamen bat onartzea”. “Bizi dugun egoera honetan lehentasunak beste batzuk dira eta gure ustez egokiagoa zen gaia mahai gainean uztea eta likidazioa aurrerago onartzea, krisiak nola eragingo digun hobeto jakin ondoren eta horri aurre egiteko baliabideak ezarrita”. Kreditu gehigarrian egoera berriari aurre egiteko proposamenik txertatu ez zenez, jeltzaleek proposamenaren aurka bozkatu zuten.

## Koronabirusari aurre egiteko proposamenak

Gauzak horrela, gerakineko 2,5 milioi geratuko dira erabilgarri 2020rako eta horiek elkarlanean eta zuhurtziarik handienarekin kudeatzea eskatzen du EAJk, egungo egoera aintzat hartuta eta krisiari aurre egiteko neurriak hartuz. Osoko bilkuran egin zituzten jeltzaleek proposamen horietako batzuk, hain zuzen. Jon Kepa Gerrikagoitia zinegotzi jeltzaleak azaldu zuen, “Covid-19ak sortutako osasun larrialdiak Oñatiko sektore ekonomikoetan eragin handia” izango duela, “bereziki merkatari, ostalari, autonomo eta enpresa txikietan”. “Udalak baditu tresnak eragin ekonomiko hori arintzeko, eta horiek aktibatzea proposatzen du gure udal taldeak”. Bi motatako neurriak proposatu zituen EAJk:

— **Neurri fiskalak, zerga-karga arintzeko:**

- Itxita dauden bitartean saltoki, taberna, kafetegi, jatetxe eta gainerako jarduera profesionalei hondakinak biltzeko tasaren kobrantza etetea.
- Osasun krisiak irauten duen bitartean terrazak jartzeari dagokion tasa ere ez kobratzea.
- 75%eko hobariak zergetan (OHZ eta JEZ) osasun-larrialdiak eragiten dien negozioentzat, egoera honek irauten duen bitartean.

— **Dirulaguntzak:**

- Gastu bonoen bitartez kontsumoa aktibatzeko 75.000 euroko dirulaguntza lerroa. Udalak %10 bere gain hartuta, 750.000 euro mobilizatuko lituzke horrela eta Lanbidek eskainiko dituen dirulaguntzeken osagarriak izango lirateke.

Bukatzeko, jeltzaleek elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahi izan dute “elkarlanean sinisten dugu eta udal gobernuak ere elkarlanerako borondatea azaltza nahiko genuke, oñatiarren alde lan egitea dagokigulako bai gobernuari eta baita oposizioari ere”. “Herri ordezkarriak gara, zuhur jokatu behar dugu herritarren diruarekin eta gizarte bezala, elkarrekin eta inor atzean utzi gabe krisi honi aurre egitea da benetako lehentasuna. Bide horretatik ziur gaude guzton artean krisia gaindituko dugula”.

## **"ES MOMENTO DE HACER FRENTE A LA CRISIS PROVOCADA POR LA EMERGENCIA SANITARIA Y A ELLO DEBEMOS DIRIGIR NUESTROS RECURSOS"**

- **Esta crisis no coge al Ayuntamiento de Oñati en su mejor momento económico, con una deuda viva de 11,3 millones y un nivel de endeudamiento del 6,58%, un 2,27 superior a la media de ayuntamientos similares y “en esta situación es absolutamente imprescindible actuar con total prudencia y establecer prioridades”.**
- **“El ayuntamiento debe implementar medidas compatibles con las de otras instituciones como bonificaciones y exenciones en impuestos y tasas o bonos para promover la actividad económica dentro del municipio”.**

Todas y todos vivimos una situación extraordinaria y difícil debida a la pandemia desatada a nivel mundial y el ayuntamiento no es una excepción y siguiendo los criterios para frenar el avance del coronavirus, tanto la comisión de hacienda como el pleno de la semana pasada para la aprobación de la liquidación del presupuesto de 2019 se celebraron de forma telemática

### **Situación económica del ayuntamiento**

Es evidente que esta emergencia sanitaria tendrá consecuencias en nuestra economía; autónomos y pequeñas empresas han comenzado ya a sufrir los efectos de las medidas que se han adoptado debido al estado de alarma y, según los jeltzales, el ayuntamiento no será una excepción. “La situación económica del Ayuntamiento de Oñati no es, lamentablemente, la mejor para hacer frente al coronavirus” afirma Ainhoa Galdos, “a lo largo de estos últimos años hemos pedido insistentemente que se realizara una previsión para hacer frente a las obras del polideportivo, pero, desgraciadamente, no se tomaron en cuenta nuestras peticiones y la crisis nos ha cogido de lleno”. Como indica el informe del interventor, el Ayuntamiento de Oñati tiene en estos momentos una deuda viva de 11,3 millones y un nivel de endeudamiento del 6,58%, un 2,27 superior a la media de ayuntamientos similares. Según los jeltzales “se prevé que debido a esta crisis baje la recaudación y el ayuntamiento verá reducidos sus ingresos, tanto de la recaudación municipal como del fondo foral”. Por tanto, “es necesario tener esto en cuenta y actuar con la máxima prudencia” afirma la portavoz del grupo municipal EAJ-PNV.

### **Liquidación y remanente de tesorería**

“La liquidación del presupuesto de 2019 deja un remanente de tesorería de 13.021.803,20 euros” explican los jeltzales, “la principal causa de esa baja ejecución es que de los 14.655.895, 91 euros destinados a inversiones se han ejecutado inversiones por un importe sólo de 4.474.171,13 euros”. Aunque dicho remanente sea de cerca de 13 millones, casi 8,5 de ellos están comprometidos y se han incorporado por decreto de alcaldía, sin embargo, el crédito adicional de alrededor de 2 millones debía ser aprobado por el pleno y según ha explicado Galdos “el equipo de gobierno llevó una propuesta cerrada a la comisión y al pleno. No se nos ha dado la oportunidad de realizar aportaciones y se nos hizo llegar la propuesta al mismo tiempo que a la prensa”.

Los jeltzales se muestran preocupados, especialmente, por la precipitación a la hora de decidir a qué destinar el remanente. Según han explicado, el documento se redactó a mediados de marzo y desde entonces la situación ha dado un vuelco. “La situación de autónomos, pequeños negocios, comercio, hostelería... ha empeorado notablemente y se prevé que esta situación no vaya a mejorar, por tanto, nos parece irresponsable aprobar una propuesta que no toma en consideración la situación actual”. “En la situación que vivimos, las prioridades son otras y a nuestro entender era preferible dejar la liquidación sobre la mesa y aprobarla más adelante, conociendo el alcance de la crisis y pudiendo incorporar medidas

para afrontarla”. Al no haberse incorporado al crédito adicional ningún recurso para afrontar la crisis, los jeltzales votaron en contra.

### **Propuestas para hacer frente al Coronavirus**

Así las cosas, quedarán disponibles para 2020 otros 2,5 millones del remanente y EAJ-PNV solicita que se gestiones en cooperación y con la máxima prudencia, teniendo en cuenta la actual situación y tomando medidas para afrontar la crisis. Los jeltzales realizaron algunas propuestas en ese sentido en el mismo pleno en boca de su concejal Jon Kepa Gerrikagoitia “la emergencia sanitaria provocada por el Covid-19 afecta de manera importante al tejido económico de Oñati, especialmente a comercio, hostelería y pequeña empresa”. “El ayuntamiento posee herramientas para aliviar ese impacto económico y nuestro grupo municipal propone activarlas”. EAJ-PNV realizó propuestas en 2 sentidos:

— **Medidas fiscales para aliviar la carga fiscal:**

- Mientras duren las medidas de emergencia, suspender el cobro de la tasa de residuos a establecimientos que permanezcan cerrados.
- No cobrar la tasa de terrazas mientras dure la crisis sanitaria.
- Bonificaciones del 75% en impuestos (IBI e IAE) a negocios afectados por la emergencia sanitaria mientras dure la misma.

— **Subvenciones:**

- Línea de subvención de 75.000 euros mediante bonos de gasto para activar el consumo. Asumiendo un 10% del coste, se movilizarían 750.000 euros en el municipio y sería una medida complementaria a las de Lanbide.

Para concluir, los jeltzales han querido subrayar la importancia de la colaboración “creemos en la colaboración y esperamos que el equipo de gobierno muestre voluntad para trabajar conjuntamente, porque nos corresponde trabajar por y para las y los oñatiarras, tanto a quienes gobiernan como quienes estamos en la oposición”. “Somos representantes del pueblo, debemos actuar con prudencia en la gestión del dinero de las y los oñatiarras y debe ser nuestra prioridad hacer frente a esta crisis juntos como sociedad, sin dejar a nadie atrás. Estamos seguros de que por ese camino superaremos la crisis”.